

Errientsa berria...

Segur, berria laster zabaldu zen: errienta bularretarik eritu zela eta zenbait hilabetez bederen ez zigula eskolarik egiten ahalko. Hori jakitean, denok pena hartu genuen, gure irakaslea arras maite genuelako, hain zen argia eta laketa.

Lehen ordaina, eskola ttipiko errientsa izan zen. Errientsa sudur luze, mehe-mehe bat. Frango goxoa, oro har. Funtsean, zer egiten ahalko zuen hainbeste haurren aitzinean? Zeren errientsarekin batean, eskola ttipiko haur guziak ere gure eskolara etorri ziren eta beraz ez genuen lan handirik egiten, usuago kanpoan ginen barnean baino. Guk uste genuen errienta sendatu arte horrela izanen zela eta loriatuak ginen zer momentu zoragarriak behar genituen iragan, burua sobera hautsi gabe...

Baina hiru egunen buruko, gauzak aldatu ziren. Errientsa bat etorri zen, baina ez eskola ttipikoa... Eta segidan erran zigun hura zela errientaren “egiazko” ordaina. Lehen solasetarik beretik ohartu ginen ez zela eztiño haietarik eta hain segur larderia bortitzenaren azpian atxikiko gintuela pentsatu genuen. Ez ginen tronpatu. Gure errientsa berria “animale gogorra” zen. Aboza ozen eta begia zorrotz, beldurra ematen zigun. Gu, ordu arte, frango goxoki ohituak, ez genuen beste beharragorik ori! Bestalde, (azen ontzeko!) horra non erraten digun, norbait entzun duela euskaraz haren kontra mintzo eta kasu eman genezan zeren bera Arrosarra zenaz gero, euskara konprenitzen eta mintzatzen zuela guk bezain ongi!

Horren jakiteak, halere, halako bat egin zigun, halako plazer bat bezala. To; Euskalduntsak ere izaten ahal ziren beraz errientsa... Baina gure “plazerak” ez zuen luzaz iraun. Laster ohartu ginen gure “euskalduntsa” euskararen etsai errabiatu bat zela: errekreazione denboran zenbait hitz euskaraz erran baikenizkion, gain-gainetik debekatu zigun hari euskaraz mintzatzea, baizik-eta, euskara jende basa eta zozoen mintzaira bat zelako!...

Bestalde, gure errientsak uste zuen frantsesaren ongi ikasteko euskara ahortzi behar zela. Beraz, erabaki hau hartu zuen: errekreazione denboran ere *denok beti frantsesez* ari izan behar genuela.

Ordu arte nola ari ginen, xuxen ez nekike erraiteko, hain segur, kliskun-klaskun, bi mintzairak nahastekatzen genituzkeen, baina errientsaren debekuak ondoriotzat ukan zuen, sekula baino euskara gehiago entzuten zela errekreazione denboran.

Egitate horren aitzinean errientsa arrunt haserretu zen eta zernahi erran zigun. Baina aldi hartan ez zen mehatxuetan gelditu. Errekreazionerakoan jats bat hartu zuen eta gutarik bati eman, erranez: —“Norbait entzuten dukanean euskaraz ari, aski diok hari pasatzea... harek gero beste bati eta eskolara sartzeko momentuan jatsa eskuan atxikiko duenak gaztigu bat ukanen dik!”...

Bistan da, errekreazione denboran, jatsa hamar eskutarik bederen pasatu zela, halabaina nor ez zen euskarara lerratzen? Jatsa eskuan zegoena, gaztiguaren beldurrak segidan “poliza” bat bilakarazten zuen, bere lagun hoberenaren ukatzeko eta saltzeko gai zena.

Lehen egunean, uste dut, ez nuela hitzik atera eta nik bezala beste askok. Baina, biharamunean pilotan hastera gindoazelarik, mila-miliunka aldiz bezala, bota nuen: —“Jo!”... Ordu berean, jatsduna ondora etorri zitzaidan, baizik-eta euskaraz mintzatu nintzela. Nik ezetz. Hark baietz: “Jo!” erran nuela eta “Jo!” euskaraz zela. Hainbestearino durduzatua nintzen non ez bainekien

gehiago “Jo!” frantsesez ala euskaraz zen ere. Euskaraz zatekeen, zeren luza gabe, eskolako ate ondoan plantatu behar ukan bainuen, neure jatsa eskuan.

Belarriak xut, begiak burutik jalgiak, zainak airean, han nengoen, deabruak hartua, euskaraz hitz bat erranen zuenaren gainera jauzi egiteko prest. Eta jakin ezazue gogotik jauzi eginen nuela! Baina ez nuen paradarik ukan eta berriz eskolan sartzeko tenorea etorri zenean, errientsak herrarekin behatu zidan eta eskolako lagun batzu nitaz trufatu ziren.

Inoiz ez dut ahantziko zer bihotz-zimikoa izan zen hori enetzat. Lehenik afruntua. Gero gaztigua:

Je ne parlerai pas en basque
Je ne parlerai pas en basque
Je ne parlerai pas en basque
Je ne parlerai pas en basque
Je ne parlerai pas en basque
Je ne parlerai pas en basque

“Ez naiz euskaraz mintzatuko” berrogeita hamar aldiz idazteak, nahi eta ez, gure izpiritua “lantzen” zuen. Eta nola! Eta sekula berriz “harrapatuak” baldin baginen, gaztigua doblatua zen, erran nahi baita, ehun aldiz idatzi behar genuela:

Je ne parlerai pas en basque

Bestalde, jats “zikin” hori dela medio, eskolako haurren artean ez zegoen gehiago lehenagoko konfiantza bera. Elkarren beldur ginen. Beldur! Batak ziotsan besteari: –“Hiregatik izan nauk punitua; ez diat ahantziko!” edo indartsu batek ahulagoko bati: –“Salatzen banuk, muturra hautsiko deat!” eta zenbat horrelako. Hortarik zetozen samurgo eta hisiuak. Hots, errientsa berriak ekarri digu: elkarren artean ezin bizia!

Eta jazartzeko partez, burua apaldu dugu... errautsa milikatzerainokoan: euskaraz mintzatzeko lotsa, ahalge ginen.

Gure errientsa, aldiz, kontexko zen... Donoztiriko eskolako haurrek frantsesa mintzatzen zutelako Tamanrasset-ekoek bezain ongi. Funtsean, ez ote zigun aski usu errepikatzen: –“La France est une et indivisible de Dunkerque à Tamanrasset”.

Kasik urte bat gurekin egonik, egun batez, errientsa berria joan zen.

–“Sans pleurs ni couronnes”.

Errient bat etorri zitzaigun, baina ez lehenagoko hura. Sekula ez diogu salatu “jatsaren hixtoria”. Ez zuen balio: errekreazione denboran denok frantsesez ari ginen.

Je ne parlerai plus en basque...

Daniel LANDART, Aihen ahula, 1978

COMMENTAIRE GUIDE

Idazki honen azterketa eginen duzu ondoko gogoeta ardatz hauen inguruan:

Testuko pertsonaien arteko harremana.

Pertsonaia horien hizkuntzarekiko jarrera.

Gertaera hauen garaia.

TRADUCTION

Zati honen frantsesezko itzulpena eginen duzu:

“Lehen ordaina, eskola tipiko”-tik “mintzatzen zuela guk bezain ongi!”-rat.